

Historikoki eskuin muturreko ideologia nagusi izan den Israelgo herri batean pentsamendu paradoxikoan oinarritutako komunikazio kanpaina bat bideratu ondoren, herri horretako jarrerak leuntzea lortu du Israelgo ikerlari talde batek. Beste gatazka batzuetan aplikatu daitekeela diote.

# Gatazka baketzearen paradoxa

Lander Muñagorri Garmendia

**M**ende erdi, eta gaur-gaurkoz irtenbiderik ez duen gatazka bat da Israelen eta Palestiaren arteko guda. 1948. urteko okupazioaren ostetik, liskarrek gorabehera ugari izan dituzte, baina gatazka bere horretan jarraitu du gaur arte. Israelen eta Palestinaren arteko borroka askotan erabili da konpondu ezin den gatazka baten paradigma gisa, eta, oraindik ere, horretarako balio dezake. Bi alde-en jarrerak muturtuta daudelako oraindik. Baina jarrera horiek leundu daitezkeela erakutsi du Israelgo hainbat unibertsitateen artean egin duten esperimentu batek. Komunikazio kanpaina batek historikoki eskuin muturreko jarrerak zituen herri baten pentsatzeko modua aldatu baitu. «Israel osorako halako kanpaina masibo bat egingo balitz gatazka gainditzen lagunduko luke, baina hori ez da behin betiko konponbidea izango», azaldu du Boaz Hameiri Tel Aviveko Unibertsitateko psikologia sozialeko ikerlariak. Itxaropentsu agertu da hala ere, konponbidearen bidean lehen urratsa ematen dutela iruditzen zaiolako.

Esperimentua 2015eko irailean egin zuen ikerlari talde horrek, bi komunitateen arteko borrokek gora egin zuten testuinguru batean. Joan ziren eskuin muturreko jarrerak zituen herri horretara, eta kalean, sarean, hedabideetan eta hainbat euskarritan pentsamendu paradoxikoan oinarritutako mezuak zabaldu zituzten. Besteak beste, halako mezuak zabaldu zituzten: «Zuzenak izateko, ziurrenik gatazka beharko ge-

nuk»», «Herri hebrearrak bizirik iraun dezan, beharrezkoa da gerrari betiko iraunaraztea». Herri horretako biztanleak hilabetez izan zituzten gisa horretako mezuak, eta, denbora hori igaro ostean, ikerlariek sumatu zuten herriarren jarrera aldatu egin zela. «Informazio berri bat eskainita, pertsona horien jarrera aldatzen saiatu ginen; baina hori lortzeko, paradoxa bat erabili genuen, pertsona horiek beren kabuz jabetu zitezten muturreko jarrera hori zitezugabea zela».

Hain juxtu, muturreko pertsona horientzat garrantzitsuak diren kontzeptuak baliatu zituzten. Hau da, moralak, batasuna, zintzotasuna edo gisakoak. «Israeldar askok uste dute moralak daukatela, eta, horrela, berengana heltzea lortu genuen; baina mezuaren bigarren zatia zekarren ondorio horrek mezua absurdora eramaten zuen, eta hori deigarria bihurtzen zen haien zatitza». Horrela lortu zuten muturreko ideologia zuten pertsona horiengana iristea, eta era berean, euren jarreraren inguruan hausnarketa egitera bideratzea.

Baina pentsamendu paradoxikoak arrakasta edukiko badu, kanpainan erabiltzeko diren mezuek soti-lak izan behar dute. Be-

har bezalako aukeraketa egitea oso garrantzitsua dela dio Itziar Fernandez EHUko psikologia fakultatean gatazken konponbidea jorratzen duen irakasleak. Izan ere, muturreko ideologia daukan pertsona bati bere pentsamenduaren aurka doan mezu bat eskainiz gero, «pertsona ho-





rrek berehala baztertuko du informazio hori». Ez dio jaramonik egingo, eta bere pentsamenduan indartuko litzateke, Fernandezek arabera. Horren partez bere ideologiaren ildotik doan mezu bat ikusiz gero, hori barnertuko du. «Pentsamendu paradoxikoak, azken finean, hartzailearen hausnarketa

bideratzea lortu nahi baitu». Israelgo herri horretan bideratutako kanpaina horretan mezuak absurdora eramane zituzten ikertzaileek, «baina modu sotil batean», Fernandezek arabera. Eta hor dago esperimentu horren garrantzia. Hala ere, ikerketak ez du zehazten zenbat biztanleko herrian egin zen ikerketa, edo zein den hango testuingurua, baina «emaizta oso indartsua da», gatazken konponbiderako irakaslearen arabera.

Bide hori sakontzea garrantzitsua dela uste du Fernandezek; azken finean, gatazka bat gainditzeko lehen urratsa «beste aldearekin enpatia erakustea baita». Eta hori hausnarketa propio baten bidetik lortu behar dela dio. «Alde bakoitzaren autodeterminazio gaitasuna lortu behar da, hau da, bakoitzak bere erabakiak hartzeko gaitasuna izan behar du; nik aurreikusten badut beste aldeko pertsona batek ez duela ikuspegia aldatuko, gatazka konponitzeko garaian oztopo bat jartzen ari naiz». Horregatik uste du dela mugarri bat ikerketa hori, gatazkan dagoen aldeetako baten autodeterminazioa sustatzen duelako.

## Pertsuasioaz haratago

Forma eta edukien aldetik dakar berritasuna esperimentu horrek. Izan ere, «orain arte pertsuasio politikoa erabili da israeldar eta palestinarren arteko gatazkan», azaldu du Javier Cerrato EHUko psikologia sozialeko irakasleak. Disonantzia kognitiboa deitu dio teknika horri, edo, beste era batera esanda, argudio-





Herioiak edukitzeko, ziurrenik gatazka beharko genuke edo Armada edukitzeko, ziurrenik gatazka beharko genuke esaldiak erabili dira kanpainan. BERRIA

Pentsamendu paradoxikoa aplikatzeko garaian, eragin nahi den komunitatea ondo ezagutu behar dela diote adituek. Muturreko ideologia horrela leundu daiteke.

**1 Muturreko mezua.** Muturreko mezurik ez baldin badauka, hartzaileak bere ez egiteko arriskua dauka. Horregatik, euri iritsiko zaien mezua izan behar du.

**2 Absurdura eraman.** Mezuak muturreko mezua hori absurdura eramaten baldin badu, hartzaileak mezu horren inguruan hausnarketa bideratzen du.

**3 Autodeterminazio pertsonala.** Pertsuasioan oinarritutako mezuekin gertatzen ez den bezala, kasu honetan, pentsamendu paradoxikoak bakoitzak bere aldetik hausnarketa egitera bideratzen du. Prozesu horri autodeterminazio pertsonala deitzen zaio.

ekin pentsatu behar dena zer den azaltzea. «Pertsona bati ezin zaio esan pentsatzen duena ez dela egokia, bestela ez duelako ideia hori barnertuko».

Pertsuasio modu hori urte luzez erabili dela gogorarazi du, ordea. Gerra Hotzaren garaian, AEBek komunismoaren aurka egin zuen gurutzadan, esaterako, disonantzia kognitiboa erabili zutela azaldu du. Baita hauteskunde kanpaina edo pertsuasio komertzialaren kasuan ere. «Metodo horrek testuinguru jakin batean funtziona dezake; hau da, zuk pertsona bat momentu jakin batean konbentzi dezakezu produktua bat edo alderdi politiko bat bozkatzera». Eta, horretarako, momentu jakin horretako testuingurua balia daiteke argudio ezberdinekin, «eta eraginkorrak izan daitezke». Baina horrek urte luzeetan sustraituta dauden ga-

tazketan ez dauka eraginik, Cerratoreren arabera. «Era horretako gatazketan jarrera oso definituta dago, eta hortik kanpo ateratzea oso zaila da». Ez bada pertsona bakoitzaren hausnarketa sustatzen, pentsamendu paradoxikoa erekin egin den bezala.

Autodeterminazio gaitasuna lortu nahi du metodo horrek, baina zalantza ere eragin dezake. Izan ere, zer gertatuko litzateke kausa justu baten partez, pentsamendu paradoxikoa kontrako helburu bat lortzeko erabiliko balitz? Hau da, gatazka bat konpontzeko saiakera egin beharrean, beraren betikotasuna bilatuko balu? Fernandez arabera, hori gertatzea ez da oso litekeena, «azken finean hausnarketa sustatu, eta pentsamendua zabaltzen laguntzen duelako». Horregatik uste du ez dela oso litekeena gatazka bat betikotzeko erabiltzea.



**Israel osorako halako kanpaina masibo bat egingo balitz, iruditzen zait gatazka gainditzen lagunduko lukeela»**

**Boaz Hameiri**  
Tel Aviveko Unibertsitateko irakaslea

**«Une jakin batean, pertsuasioak balio dezake boto bat lortzeko; sustraitutako gatazka batean, ez du balio»**

**Javier Cerrato**  
EHUko psikologia sozialeko irakaslea

**«Pentsamendu paradoxikoaren xedea da hartzailearen hausnarketa prozesua bideratzea»**

**Itziar Fernandez**  
EHUko psikologia irakaslea

Baina Cerratok kezka hori azaldu du. Izan ere, propagandak baterako edo besterako balio deza-keela uste du. «Horregatik, ezinbestekoa da ildo etiko bat garbi edukitzea aldaketa soziala eragin dezaketen jardura batzuk sustatzeko garaian». Hameirik ere badu beldur hori. Eta bi zentzutan ikusten dio arrisku hori, gainera: «Batetik, nik babesten ez ditudan mezuak zabaltzeko erabil daiteke metodologia hau, eta hori negatiboa izango litzateke; bestetik, behar bezala aplikatuko ez balitz, lortu nahi denaren aurkako eragina lortu daiteke». Puntu horretan komunikazio kanpaina baten barruan zabaldu beharko litzatekeen mezuaren egokitasuna nabarmendu du berriz ere.

**Beste gatazketarako amu**  
Palestinaren eta Israelen arteko gatazketaren testuinguruan egin-

dako esperimentua da Hameiri, eta beste hainbat ikerlarik 2015eko irailean abiatu zuten ikerketa. Baina antzeko prozesuak beste gatazka batzuetara eraman daitezkeela uste du. Horretarako, ordea, gatazka bakoitzaren testuingurua «behar bezala ikertu eta ulertu» behar dela azpimarratu du. Bestela, helburuak ez betetzeko arriskua izan baitezake. «Alde baten argudioak muturrera eta absurdora eramanda emaitza positiboak lortu ditugu; baina hori ondo aplikatzen ez bada, arriskutsua izan daiteke». Baina, finean, pentsatzeko modua zabaldu eta aniztasuna nahi duen metodologia dela azpimarratu du. Ikerketa horretan garbi geratu da mezu absurdoek gauza handiak lor ditzaketela. Muturreko ideologia leuntzeko modua delako pentsamendu paradoxikoa.

- I. BIZIARIKO LITUSIN ARAZAKO ABELGORRIEN TXAPELKETERA
- II. TXOKOLATE, GOZD ETA ARTISAUTZA AZOKA
- TXODetik aurrera, BARZARRA: euskal txerri, euskal pizza eta euskal garagardoa.
- 17.00h. EUSKADIKO GOMA GAINEKO 4141 SOKATIRA TXAPELKETERA, FRONTOIAN

- I. BIZIARIKO LITUSIN ARAZAKO ABELGORRIEN TXAPELKETERA
- XXXI. ZAMUDIOKO AZOKA

EURIA BARRA, GUZTIRA KARRAPERAN

